

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 4.383 ikaslek derrigorrezkoen ondoko eta unibertsitateko ikasketetarako beka jasoko dituzte ikasturte honetan

*Foru Gobernuak 3,6 milioi euro bideratuko dituen onuradunen behin-behineko zerrenda Hezkuntza Departamentuan eta Nafarroako Jauregian kontsulta daiteke*

Miércoles, 27 de mayo de 2015

4.384 ikaslek jasoko dute 2014-2015 ikasturte honetan, derrigorrezkoen ondoko eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat Nafarroako Gobernuak emandako [beka eta laguntza](#) osagarriak (batxilergoa, erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza-zikloak, ikasketa artistikoak, gradua eta masterra), bekadunen zerrenda zehaztutako [223/2015 Ebazpenak](#) jasotzen duenez.



Ikasle-talde bat eskolan, ordenagailuekin.

Oraindik behin-behineko zerrenda da, bertan onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda ageri da, eta Nafarroako Jauregian jendeari informazioa emateko bulegoan kontsulta daiteke (Karlos III. etorbidea, 2, Iruña), bai eta Hezkuntza Departamentuko informazio eta dokumentazioko Negoziatuan ere (Santo Domingo kalea, 8. Iruña). Gobernuak, gainera, emaitza interesdunei pertsonalki helaraziko die gutun bidez edo posta elektronikoz.

Hilabeteko epea zabaltzen da orain, ekainaren 27ra arte, kaltetuek erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten (Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuari zuzenduta), [Nafarroako Gobernuko erregistro](#)etako batean edo [30/1992 Lege](#)aren, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 38.4 artikuluan ezarritako beste edozein bulegotan, bai eta Foru Gobernuko [erregistro elektronikorokor](#)aren bidez ere.

### 7.139 eskaera aurkeztu dira

Aurtengo deialdira 7.139 eskaera aurkeztu dira 8.513 ikasleentzat; izan ere, guraso berak beka seme edo alaba bat baino gehiagorentzat eska dezake. Haietatik, beka edo laguntza 4.384 ikasleri behin-behineko ematea ebatzi da: 6.639.615,17 euro, guztira.

Zenbateko horretatik, Hezkuntza Departamentuak 3.629.104 euro ordainduko du, gehienez ere, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak edo

Eusko Jaurlaritzak emandakoen laguntza osagarriak direlako, gainerakoa ematen dutenak, deialdiaren [520/2014 Ebazpen](#)ean jasotzen den moduan.

Bekak eta laguntzak jantoki, matrikula, egoitza eta aparteko gastuak ordaintzeko dira. Ikasle berak beka kontzeptu bat baino gehiagotan eskura dezake.

Behin-behineko ebazpenaren arabera, 165 ikasle jantokiko laguntzaz baliatuko dira (65.211,80 euro); 2.856 ikasle, matrikula-bekaz (3.606.321,14 euro) eta 1.246, egoitza-laguntzaz (1.994.491,81 euro). Gainera, 1.755 ikasle garraio-laguntzaz baliatuko dira (864.484,42 euro), eta 101 aparteko laguntzaz (109.106 euro).

Ikasleak egiten ari diren ikasketei dagokienez, 1.614 erdi-mailako ikasketetan matrikulatuta daude (batxilergoa eta erdi-mailako zikloak), 2.643 graduiko ikasketetan, 105 masterrekoetan eta 22 goi-mailako ikasketetan.